

ITZARRI BGAE ENPLEGUKO GIZARTE AURREIKUSPENEKO ITZARRI ENPLEGU PLANEKO PRESTAZIOEN ARAUDIA

2019ko otsailak 27



OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Finantza Politikako Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Política Financiera

AURKIBIDEA

1. ARTIKULUA. HELBURUA	1
2. ARTIKULUA. PLANAREN FINANTZA SISTEMA ETA MODALITATEA.....	1
3. ARTIKULUA. PLANA ERATZEA ETA IRAUPENA.....	1
4. ARTIKULUA. BAZKIDE SUSTATZAILEAK.....	1
5. ARTIKULUA. BAZKIDE BABESLEAK.....	1
6. ARTIKULUA. BAZKIDE OSOAK.....	1
7. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNAK	1
8. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUNA ETA BITARTEKARITZA BAZKIDE BABESLEEN EKARPENEN ORDAINKETAN	2
9. ARTIKULUA. BAZKIDEEN ALTAK, BAJAK, ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	2
10. ARTIKULUA. PLANARI EGINDAKO EKARPENAK	2
11. ARTIKULUA. PLANAREN PRESTAZIOAK	2
12. ARTIKULUA. ERRETIROA.....	3
13. ARTIKULUA. EZINTASUN IRAUNKORRA	3
14. ARTIKULUA. HERIOTZA	3
15. ARTIKULUA. IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA	3
16. ARTIKULUA. PRESTAZIOEN ORDAINKETAK ESKATZEA ETA PROZEDURA.....	4
17. ARTIKULUA. PRESTAZIOAK ORDAINTEZKO MODALITATEAK	5
18. ARTIKULUA. PRESTAZIOAK AZKENTZEA.....	5
19. ARTIKULUA. ESKUBIDE EKONOMIKOAK BORONDATEZKO AURREIKUSPENENKO BESTE ERAKUNDE BATERA MUGITZEKO ESKABIDEA ETA PROZEDURA.....	5
20. ARTIKULUA. ESKUBIDE EKONOMIKOAK BORONDATEZKO BESTE AURREIKUSPEN- ERAKUNDE BATETIK ITZARRIRA MUGITZEKO ESKAERA ETA PROZEDURA.....	6
21. ARTIKULUA. ADMINISTRAZIO-GASTUAK.....	7
22. ARTIKULUA. ERREKLAMAZIOAK EGITEKO PROZEDURA.....	7
23. ARTIKULUA. ARAUDI HAU ALDATZEA	7
24. ARTIKULUA. PLANA AZKENTZEA ETA LIKIDATZEA.....	7

NIF: V-01373885 Inscrita en el Registro Oficial de E.L.S.V. de Buzkadi con el número 260-A
IFZ: V-01373885 260-A con la fecha de inscripción 02/02/2010. Eragotia erregistratua



OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Finantza Politikako Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Política Financiera

1. ARTIKULUA. HELBURUA

Itzarri Enpleguko Gizarte Aurreikuspeneko Planeko prestazioen araudiak, Itzarri Enpleguko BGAEra atxikitakoak, BGAEn eta plan horretako onuradun eta bazkideen arteko harremanak arautzen ditu, baita horien betebeharrak eta eskubideak ere.

2. ARTIKULUA. PLANAREN FINANTZA SISTEMA ETA MODALITATEA

Itzarri Enpleguko BGAEn integratutako Enpleguko Gizarte Aurreikuspeneko Itzarri Plana ekarpen definituko araubidearen barruan kokatzen da; sistema finantzarioari dagokionez, banakako kapitalizazio finantzarioa da.

Planak ez du aurreikusitako prestaziei lotutako inolako arriskuren estaldurarik bere gain hartuko.

3. ARTIKULUA. PLANA ERATZEA ETA IRAUPENA

Plana 2004ko uztailaren 27an eratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalak hala eskatuta; iraupen zehaztugabea dauka.

4. ARTIKULUA. BAZKIDE SUSTATZAILEAK

Bazkide sustatzailea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionala da.

5. ARTIKULUA. BAZKIDE BABESLEAK

Bazkide babesle gisa integratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionala osatzen duten erakundeak, Itzarri Enpleguko BGAEn Estatutuetako 10. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

6. ARTIKULUA. BAZKIDE OSOAK

Edozein pertsona fisiko izan daiteke planeko bazkide oso, baldin eta Erakundean bi urte egin baditu eta bazkide babesle baten zerbitzura lan egiten badu karrerako edo bitarteko funtzionario, estatutupeko edo bitarteko langile, lan-kontratuko nahiz behin-behineko langile edo goi-kargudun gisa, Itzarri Enpleguko BGAEn Estatutuetako 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

7. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNAK

Onuradun izaera izango dute bazkide oso aktiboaren, pasiboaren edo etendura egoeran dagoen bazkidearen kausadun izanik planaren aurrean eskubide ekonomikoen



hartzekodun direnek. Kondizio hori, Itzarri Enpleguko BGAEn Estatutuen 26. artikulua ezarritako baldintzak betetzen dutenek izango dute.

8. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUNA ETA BITARTEKARITZA BAZKIDE BABESLEEN EKARPENEN ORDAINKETAN

Bazkide babesle bakoitzaren ardura izango da dagozkion ekarpenak egiteko betebeharra betetzea, kasuan kasuko langile bazkide osoen kopuruaren arabera; nolana ere, babesleren batek beste norbaiten kontura ekarpenen ordainketetan bitartekaritza lana egin dezake.

9. ARTIKULUA. BAZKIDEEN ALTA, BAJAK, ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Planen sartzeko edo planaren bazkide izateko araubidea, baita alen, baje, uzteen inguruan eta harreman juridikoa azkentze eta etetearen inguruan ere, Itzarri Enpleguko BGAEn Estatutuetan aurreikusitakoa izango da.

10. ARTIKULUA. PLANARI EGINDAKO EKARPENAK

Planeko bazkideen ekarpenen araubideak bete egin beharko du Itzarri Enpleguko BGAeko Estatutuen 33. artikuluan ezarritakoa.

Bazkide babesleri dagozkion ekarpenak hilero ordainduko dira, benetan ordaindutako ordainsarien proportzioan; benetan ordaindutako egunean izango du balioa.

Bazkide osoek borondatez egin nahi dituzten ekarpenak bazkide babesleak egingo ditu, bazkide osoari nominatik kendu ondoren, bazkide osoak egoera hori eskatzen baldin badio bazkide babesleri, edo zuzenean bazkide osoak planari. Borondatezko ekarpenek, nomina zein finantza Erakundeen bidez egindakoak, benetan egiten diren egunean izango dute balioa.

11. ARTIKULUA. PLANAREN PRESTAZIOAK

Prestazioek planeko onuradunen edo bazkide osoen aldeko eskubide ekonomikoak aitortzen dituzte, planak estalitako gertakari edo gertakizunen bat gertatzen bada. Prestazioa jasotzeko eskubidea sortutako egunean bazkideak zituen eskubide ekonomikoen adinakoa izango da prestazio ekonomikoa.

Estalitako kontigentziak honako hauek dira: erretiroa, ezintasun iraunkorra, heriotza eta iraupen luzeko langabezia, araudi honetako hurrengo artikuluetan ezarritako baldintzetan.

Prestazioen eskubide ekonomikoak bazkide osoak kapitalizatutako aurrezkiaren berdinak izango dira.

Planak ez du aurreikusi eskubide ekonomikoak erreskatatzeko eskubidea.

12. ARTIKULUA. ERRETIROA

Erretiroaren kontingentzia bazkide osoak Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean eta antzekoetan aurreikusitako erretiroa hartzen duen une horretan gauzatuko da. Ondorio horietarako, aurreratutako erretiroa, malgua, partziala eta Gizarte Segurantzak kasuan kasu aitortzen dituen horien pareko beste formulak, denak ere, erretiroa izango dira.

Bazkide oso batek erretirorako sarbidea izatea ezinezkoa bada, orduan kontingentzia gauzatzat ulertuko da Gizarte Segurantzako araubide orokorraren arabera erretiroa hartzeko adinera iristerakoan, bazkide osoak lan-jarduna edo jardun profesionala egiteari utzi dionean edo egiten ez duenean eta Gizarte Segurantzaren edo klase pasiboen ezein araubidetan erretiro- kontingentzian kotizatzen ez badu.

Kasuan kasuko prestazioa jasotzea aurreratu ahal izango da 60 urtetik aurrera, baldin eta bazkide osoak estatuko klase pasiboetan edo Gizarte Segurantzaren altan izandako jarduna eten badu eta erretirora sarbidea izateko asmoa izanik tartean ez baditu betetzen kasuan kasuko Gizarte Segurantzaren araubidean edo estatuko klase pasiboen erretiro-prestazioa lortzeko betekizunak; nolahi ere, altak asimilatuta jarrai dezake edo ez.

13. ARTIKULUA. EZINTASUN IRAUNKORRA

Lanerako ezintasun iraunkorreko kontingentzia ezintasun iraunkor partziala izango da ohiko lanbideen kasuan, erabatekoa ohiko lanbideen kasuan, absolutua lan guztietarako eta baliaezintasun handia. Egoera horiek zehazteko kasuan kasuko Gizarte Segurantzaren araubidean ezarritakoa baliatuko da.

Bazkide osoak ezin badu baliaezintasun-prestaziorik eskuratu Gizarte Segurantzaren sistema publikoan, ezintasun iraunkorreko kontingentzia gertatuko da, ordaindutakoaren araberakoak ez diren pentsioei aplikatu beharreko araudiaren arabera, organo ofizial eskudunak erabakitzen duenean ehuneko 33tik gorako desgaitasuna edo gaixotasun kronikoa duela, aipatutako araudian ezarritako baremoen arabera.

14. ARTIKULUA. HERIOTZA

Heriotza-kontingentzia gertatzat joko da bazkide osoa zendu bada edo heriotza adierazpen legala ematen bada.

15. ARTIKULUA. IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA



Iraupen luzeko langabezia kontingentzia baldintza hauek betetzen dituen enplegu-galera gisa ulertuko da:

- a) Legezko langabezia-egoeran egotea. Egoera horretan sartuko dira laneko harremana edo administratiboa azkentzea eta lan-kontratua etetea, Gizarte Segurantzaren legerian ezarritakoaren arabera.
- b) Ordaindutakoaren araberako langabezia-prestazioak kobratzeko eskubiderik ez izatea, edo urtebetean kobratu izana, edo prestazio horiek agortu izana. Urtebete kontatu ahal izango da, langabeziako hamabi hilabeteak elkarren segidakoak ez izan arren.
- c) Eskaera egiten den unean dagokion enplegu-zerbitzu publikoan lan-eskatzailerik gisa izena emanda egotea.

16. ARTIKULUA. PRESTAZIOEN ORDAINKETAK ESKATZEA ETA PROZEDURA

1. Bazkide osoak, edo onuradunak, heriotza gertatuz gero, kontingentzia betetzen duela egiaztatzeko ebazpena edo dokumentazioa Erakundearen aurrean aurkeztu beharko du, egoera horretarako berariaz onartutako eredia betez; bertan prestazioa jasotzeko balizko moduei buruzko informazioa dago.
2. Bazkide osoak edo onuradunak prestazioa kobratzeko zein modu aukeratu duen jakinaraziko dio Erakundeari.
3. Erakundeak aipatutako dokumentazioa aztertuko du, eta beharrezkotzat jotako datu osagarri oro eskatu ahal izango du.
4. Prestazioa ukatzen bazaio, Erakundeak ukapena bazkide pasibo edo onuradun potentzialari jakinarazi beharko dio, gehienez hogeita hamar eguneko epean, dokumentazio guztia jaso den unetik zenbatzen hasita; horretarako arrazoiak ere azaldu beharko dira.
5. Erakundeak gehienez ere hilabeteko epean ordainduko ditu prestazioak, betiere epe horrek hurrengo hilabeteko azken eguna gainditzen ez badu, Erakundearen egiaztapen guztiak aurkezten direnetik zenbatzen hasita; nolana ere, kontingentzia bazkide oso baten heriotza baldin bada, epe hori zendu den pertsonaren onuradunak zehaztu ondoren hasiko da.
6. Bazkide pasibo edo onuradun potentzialek Itzarri Enplegu BGAeko Gobernu Batzordearen aurrean aurkez ditzakete prestazioa aitortzeko eskubidearen aurkako erreklamazioak; Gobernu Batzordeak hortik aurrera egingo duen lehenengo bilkurako gai zerrendan sartuko ditu. Hartutako erabakiaren berri emango die interesatuei. Gobernu Batzordeak Erakundeko zuzendari nagusiari eskuordetu ahal izango dio paragrafo honetan aipatutako erreklamazioak



ebazteko eskumena, Kasu horretan, Itzarri Enpleguko BGAEko Estatutuen 65. artikularekin bat eginez izapidetuko dira.

17. ARTIKULUA. PRESTAZIOAK ORDAINTEKO MODALITATEAK

Bazkide oso edo onuradunen eskubide bidezko prestazioak, aitortu ondoren, aipatutako kontingentziak gertatzearen ondorioz, honako modalitate hauen arteko bat jarraituz jaso ahal izango dira:

- 1) Kapitala: ordainketa bakarra jasotzen da.
- 2) Finantza errenta: ordainketa bi edo gehiago bata bestearen atzetik jasotzen dira; ordainketa horiek aldizkakotasun erregularrekin jasotzen dira, eta urtero bat gauzatzen da gutxienez.
- 3) Mistoa: aurreko modalitateen konbinazio bat da.

Iraupen luzeko langabeziari dagokion prestazioa hileko errenta bidez egingo da, salbu eta bazkide osoak ordainketa bakarra eskatzen badu, enplegua sustatzeko helburu zehatzekin. Hileko errenta horren zenbatekoa urriaren 27ko 203/2015 Dekretuko 36. artikuluan ezarritako irizpideen arabera zehaztuko da, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legearen Araudia onartu zuena.

18. ARTIKULUA. PRESTAZIOAK AZKENTZEA

Prestazioak azkendu egingo dira aitortutako eskubide ekonomikoak kobratu ondoren.

19. ARTIKULUA. ESKUBIDE EKONOMIKOAK BORONDATEZKO AURREIKUSPENEN BESTE ERAKUNDE BATERA MUGITZEKO ESKABIDEA ETA PROZEDURA

Etendura egoeran dauden bazkideek eta onuradunek, betiere Itzarri Enpleguko BGAEren Estatutuetako 28. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen badituzte, eskubide ekonomikoak borondatezko aurreikuspeneko beste Erakunde batera mugitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte.

Beharrezko dokumentazioa:

- a) Eskabide adierazpena, etendura egoeran dagoen bazkide osoak edo Erakunde onuradunak sinatutakoa eta helburuzko BGAEa berariaz adieraziz; Erakunde horri baimena emango zaio bere izenean eskubide ekonomiko horiek erabat mugitzeko eska dezan.
- b) Erakunde eskatzailearen izena. Harremanetarako pertsona, helbidea eta telefonoa.
- c) Erakunde horretarako lotutako kontu korrontearen zenbakia.

Erakundeak aipatutako dokumentazioa aztertuko du, eta beharrezkotzat jotako datu osagarri oro eskatu ahal izango du.

Eskubideak mugitzeko eskaera egin nahi duten onuradunek bazkide osoaren heriotza kontingentzia bete dela egiaztatzeko ebazpena edo dokumentazioa ere aurkeztu beharko dute.

Dokumentazioa jasotzat joko da Erakundeak eskubideak mugitzeari aurre egiteko beharrezko dokumentazio guztia jaso ondoren.

Ezarritako baldintzak aztertu ondoren, honela jokatu da:

- Adostasuna baldin badago, eskubide ekonomiko guztiak mugituko dira dokumentazio guztia jasotzen den unetik zenbatzen hasita gehienez hilabeteko epean.
- Adostasunik ez badago, helburuzko Erakundeari idatziz jakinaraziko zaio eskubideak ez direla mugituko eta horretarako arrazoiak azalduko dira.

20. ARTIKULUA. ESKUBIDE EKONOMIKOAK BORONDATEZKO BESTE AURREIKUSPEN-ERAKUNDE BATETIK ITZARRIRA MUGITZEKO ESKAERA ETA PROZEDURA

Bazkide aktiboek, pasiboek eta etendura egoeran dauden bazkideek beste aurreikuspen-plan batean aitortuta dituzten eskubide ekonomikoak, guztira edo partzialki, Itzarrira mugitzeko eskatu ahal izango dute. Horretarako, mugitzeko eskabidea behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztu beharko dute, Erakundearen.

Mugitutako eskubide ekonomikoek Erakundearen benetan sartzerakoan izango dute balioa. Jatorrizko Erakundeak eskubideak mugitzen ez baditu, bazkide osoari idatziz jakinaraziko zaio, eta horretarako arrazoiak azalduko dira.



21. ARTIKULUA. ADMINISTRAZIO-GASTUAK

Itzarri Enpleguko Gizarte Aurreikuspeneko Planaren administrazio-gastuak, araudi honen bitartez bideratuko direnak, horri lotutako ondarearen % 0,44an ezarri dira.

Erakundearen Gobernu Batzordeak ehuneko hori aldatu ahal izango du hurrengo ekitaldietan. Egiten diren aldaketa hauek gauzatu aurretik Ogasun eta Herri Administrazio Sailak onartu behar ditu.

22. ARTIKULUA. ERREKLAMAZIOAK EGITEKO PROZEDURA

Planeko onuradunek eta bazkideek erreklamazioak egiteko prozedura eta erreklamazioak eta gatazkak interpretatzeko eta konpontzeko formulak Itzarri Enpleguko BGAEko Estatutuen 65. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo dira.

23. ARTIKULUA. ARAUDI HAU ALDATZEA

Araudi hau aldatzea Itzarri Enpleguko BGAEko Gobernu Batzordeak onartu beharko du, emandako botoen gehiengo sinplez; berdinketa gertatuz gero, aipatutako batzordeko presidentearen botoak ebatziko du.

24. ARTIKULUA. PLANA AZKENTZEA ETA LIKIDATZEA

Itzarri Enpleguko BGAEa bere estatutuetan ezarritako arrazoiengatik desagitzen bada, Enpleguko Gizarte Aurreikuspeneko Plan hau azkenduko da; nolahi ere, gizarte-aurreikuspeneko planeko bazkide oso guztiak, baita horri lotutako aktibo eta eskubideak ere, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko beste Erakunde batzuekin batera eraman ahal izango dira, indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzetan.

Horrez gain, Itzarri Enpleguko BGAEko Gobernu Batzordeak gizarte-aurreikuspeneko plana desegin, eta, horrenbestez, azkendu egin ahal izango du, planak ezarritako konpromisoak garatzea modu argian ezinezkoa bada; horretarako, alde aurreko betekizuna izango da prestazioak modu indibidualizatuan bermatzea eta bazkide osoen eskubide ekonomikoak borondatezko beste gizarte-aurreikuspeneko Erakunde batean integratzea.

Gizarte-aurreikuspeneko plan hau azkendez gero, Gobernu Batzordeak, kasu bakoitzaren ezaugarriei eta une bakoitzean aplikatu beharreko araudiari erreparatuz, ondarearen helburuaz erabaki beharko du; helburu horrek, argi dagoenez, araudi honen bitartez Itzarri Enpleguko Gizarte Aurreikuspeneko Planean integratutako bazkide osoen eta onuradunen alde egin beharko du.